

9.- Aztergunea

Helbidea: *Merceria Conchi*. Irunlarrea kalea, 13A

Harri mota: **Kareharri horia**, presioak eragindako apurketa-lerroekin.

Fosilak: Nahiz eta landare fosil itxura aurkeztu, **ez da fosil bat**, *pirolusita* mineralaren kristaltze-egiturak baizik, *dendrita* izenekoak.

Kareharri honetan, presioak eragindako apurketa-lerro ugari ikusten dira; apurketa lerro horietatik barreiatu dira mineralen disoluzioak (manganeso eta burdin oxidoak nagusi) eta zartaduretatik abiatuta, prezipitatu egin dira egitura zuhaizkari hauek eratuz: *dendritak* *Dendriten* osagai nagusia, *pirolusita* minerala izaten da (manganeso oxidoa).



1. Irudia: Presio-apurketa lerro baten bi alboetara eratu diren *pirolusita*-zko *dendritak*.

